



**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI  
DAGOKIEN ZERGA ARAUTZEN  
ORDENANTZA FISKALA**

**I.- XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko beren beregiko Foru Arauan ezarritakoarekin bat eginda, honako ordenantza honen bidez, Eraikuntza, Instalazio eta Obrei dagokien Zerga ezarri eta eskatzen du.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatzen da.

**II. ZERGA-EGITATEA**

**3. artikulua**

Hirigintzako obretarako lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga egitatea, lizentzia hori jaso nahiz jaso ez, baldin eta lizentzia ematea udal honi badagokio. Era berean, erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen duten eraikuntza, instalazio edo obrak ere zergaren zerga-egitate dira.

**4. artikulua**

Besteak beste, honako hauek izango dira zerga-egiteak (ez da zerrenda itxia):

- 1.- Mota guztietako eraikin edo instalazio berriak egiteko obrak.
- 2.- Edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.
- 3.- Edozein eraikuntza edo instalazioren egitura uki ditzakeen aldaketa- edo erreforma-obra guztiak.
- 4.- Edozein eraikuntza edo instalazioren kanpo-itxura aldatzeko edo birgaitzeko obra guztiak.
- 5.- Eraikinen barne-banaketa aldatzeko obrak, horiei emandako erabilera edozein dela ere.
- 6.- Aldi baterako egin behar diren obrak, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzkoa den apirilaren 13ko 6/98 Legearen 17. artikuluan aipatzen direnak.
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur mugimenduak, besteak beste, lur-erazketak, lauketak, hondeaketak eta betelanak, salbu eta horrelako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsietan edo baimenduetan zehazturik eta programaturik daudenean.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO  
SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y  
OBRAS.**

**I. DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.-**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige el Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza.

**Artículo 2.-**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

**II. HECHO IMPONIBLE**

**Artículo 3.-**

Constituye el hecho imponible de este impuesto, la realización, dentro del término municipal, de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda a este Ayuntamiento.

**Artículo 4.-**

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1. Las obras de construcción de edificaciones e instalaciones de todas clases de nueva planta.
2. Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.
3. Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
4. Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
5. Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.
6. Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el artículo 17 de la Ley 6/98, de 13 de abril, sobre Régimen de Suelo y Valoraciones.
7. Las obras de instalación de servicios públicos.
8. Los movimientos de tierra, tales como desmontes, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.



9.- Eraikuntzak botatzea, hur-hurreko aurri-deklarazioa dutenak izan ezik.

10.- Lurrazpiko instalazioak, besteak beste erabilera hauek dituztenak: aparkalekuak, industria-, merkataritza- edo lanbide-jarduerak, zerbitzu publikoak edo lurpeari emandako beste edozein erabilera.

11.- Propaganda-kartelak jartzea, haiek bide publikotik ikus badaitezke.

12.- Gaitasun ekonomikoa erakutsi eta baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza edo instalazioak, baldin eta obra edo hirigintzako baimena izatea beharrezko badute.

### 5. artikulua

Ez dira zergapekoak izango udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntza, obra eta instalazioak, baldin eta obraren jabea Udala bera bada.

## III. SUBJKTU PASIBOAK

### 6. artikulua

1.- Ondorengoak dira, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obren jabe direnean, haiek dauden higiezinaren jabe izan zein izan ez.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondoretarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea, haren gastuak edo kostuak jasaten dituen da.

3.- Eraikuntza, instalazioa edo obra ez badu subjektu pasibo zergadunak egiten, ondokoak izango dira zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak: lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizun-aitorpenak edo alde zuzeneko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntza, instalazio edo obra horiek egiten dituztenak.

4.- Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

## IV. ZERGA-OINARRIA

### 7. artikulua

1. Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da Zerga-oinarria. Benetako kostu hori, obraren burutzapen materialaren kostua da.

Ez dira sartuko zerga-oinarrian, ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez eta araubide bereziko antzeko gainerako zergak, tasak, prezio

9. La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10. Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11. La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12. Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

### Artículo 5.-

No estarán sujetos a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

## III.- SUJETOS PASIVOS

### Artículo 6.-

1. Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquella.

2. A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

3. En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del contribuyente quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras.

4. El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

## IV. BASE IMPONIBLE

### Artículo 7.-

1. La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y



publikoak, eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak ere. Profesionalen zerbitzu-sariak, kontratistaren enpresa-mozkina eta, zentzu hertsian, burutzapen materialaren kostua osatzen ez duten gainerako kontzeptu guztiak ez dagozkio zerga-oinarriari.

2. Udalaren lizentziarik gabe burutzen diren eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, Udal Administrazioak ezarriko du zerga-oinarria.

## **V.- ZERGA KUOTA**

### **8. artikulua**

Zerga honen kuota zerga-oinarriari %5eko kargatasa aplikatuta kalkulatzen da.

### **9. artikulua**

Aurreko artikuluan adierazitako moduan kalkulatutako kuotari Udalak hobari hauek ezarriko dizkio:

a) %50eko hobaria fatxadak garbitu eta margotzeko, lan horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

b) %60ko hobaria 1945 baino lehenago eraikitako baserrietan eraikinaren kanpoko inguratzaileari (estalkia barne) eragiten dioten eraikuntza, instalazio eta obretan, udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

c) %60ko hobaria nekazaritza eta abeltzaintza arloko ustiapenatarako, obra horiek udalerako interes edo erabilera berezikotzat jotzen direlako.

Ez dira inoiz aplikatuko hobariak ustiapenei lotutako eraikuntza-lan, instalazio eta obretan, ez eraikuntza-lan berriak direnean, ezta lehengoak mantentzeko egindako lanak direnean ere.

Hobari hori aplikatzeko sustatzaileak derrigorrez izan beharko du Bizkaiko Foru Aldundiak emanda, bere jarduera nagusia Nekazaritzako dela egiaztatzen duen titulua.

Horrez gaitera, ondoko baldintzak bete eta ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- NANaren kopia
- Gizarte Segurantzaren egiaztatzea, onuraduna gutxienez ere sei hilabete lehenagotik Nekazal Araubide Berezian edo Langile Autonomoen Araubide Berezian (nekazal jarduera) alta emanda dagoela egiaztatzeko; Nekazal Araubidearen barruko pentsiodunak ere

demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio industrial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

2. En el caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la Administración Municipal.

## **V. CUOTA TRIBUTARIA**

### **Artículo 8.-**

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que será de un 5%.

### **Artículo 9.-**

Sobre la cuota resultante en el artículo anterior el Ayuntamiento establece las siguientes bonificaciones:

a) Una bonificación del 50%, por ser declaradas de especial interés o utilidad municipal, para las obras de limpieza y la pintura de fachadas.

b) Una bonificación del 60%, por ser declaradas de especial interés o utilidad municipal para las construcciones, instalaciones y obras que afecten a la envolvente externa del edificio (incluida la cubierta), en caseríos construidos con anterioridad al año 1.945.

c) Una bonificación del 60%, por ser declaradas de especial interés o utilidad municipal para las explotaciones agrícolas y ganaderas.

En ningún caso se aplicarán las bonificaciones para las Construcciones, Instalaciones y Obras de viviendas asociadas a la explotación, ya se refieran tanto a nuevas construcciones como al mantenimiento de las existentes.

Para la aplicación de estas bonificaciones será preciso que el promotor disponga de la categoría de Agricultor a Título Principal emitido por la Diputación Foral de Bizkaia.

Además, habrán de cumplirse los siguientes requisitos, y se deberá aportar la siguiente documentación:

- Fotocopia de D.N.I.
- Certificado de la Seguridad Social de pertenecer al Régimen Especial Agrario o al Régimen Especial de Trabajadores Autónomos, rama agraria, con al menos seis meses de antigüedad, o bien ser pensionista en el régimen agrario, para lo que se precisará la aportación



sartzen dira hemen eta kasu horretan ere Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da hori egiaztatzeko.

- Azken hiru urteetako Errenta Aitorpenaren fotokopia konpultsatua, eskatzailearen sarrera gordinetatik gitxienez %50 nekazaritza eta abelazkuntza lanetatik datorrela egiaztatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiak emandako egiazttagiria, ustiapenen erroldan sartuta dagoela ziurtatzeko.

Hobariak berdin aplikatuko zaizkie, Jarduera Nagusitzat Nekazaritza dutenen Titulua lortzeko asmoz euren nekazaritza eta abelazkuntza lana hasi nahi dutenei. Horretarako, ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- NANaren kopia
- Gizarte Segurantzaren egiazttagiria, onuraduna Nekazal Araubide Bereziaren edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren (nekazal jarduera) barruan dagoela ziurtatzeko.
- Nekazaritza eta abelazkuntza arloko ustiapenetako obra edo instalazioetan, nekazaritza eta abelazkuntza hasi eta lehen hiru urteei dagokien Errenta Aitorpenaren fotokopia konpultsatua. Horretaz gainera, eskatzailearen sarrera gordinetatik gitxienez %50 nekazaritza eta abelazkuntza lanetatik datorrela egiaztatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako egiazttagiria ere aurkeztu beharko da, ustiapenen erroldan sartuta dagoela ziurtatzeko.
- Atal honetan azaldutakoaren onuradunek hiru urteko epea izango dute lanbide nagusitzat nekazaritza dutela egiaztatzen duen agiria aurkezteko (Bizkaiko Foru Aldundiak emandako egiazttagiria da). Eskatutako baldintzak bete ezean, bertan behera utziko dira aplikatu diren tarifa murriztuak eta dagokion zerga-likidazioa egingo da.

Edozein kasutan ere, aurretik azaldutako kasu guztietan, egiaztatu egin beharko da lizentzia eskatzen duena dagokion jarduera burutuko den ondasunen jabea dela (Jabetza titulua, OHZ eta abar).

d) %60ko hobaria nekazaritza eta abeltzaintza arloetako jarduerak sustatzen dituzten erakunde edo elkarteek eskatzen dituzten eraikuntza-lan, instalazio edo obretarako, udalarentzat interes edo erabilera bereikotzat jotzen direlako.

e) %50eko hobaria Babes Ofizialeko Etxebizitzetako dagozkien eraikuntza, instalazio eta obretan, eta %30ekoa Udal Etxebizitza Tasatuetan.

del justificante oportuno aportado por la Seguridad Social.

- Fotocopia compulsada de la declaración de la renta de los tres últimos años, con el fin de certificar que más del 50% de los ingresos brutos del solicitante provienen de la actividad agropecuaria.
- Certificado emitido por la Diputación Foral, de inscripción en el registro de explotaciones.

Las referidas bonificaciones se aplicarán asimismo para las personas que deseen iniciar su actividad agropecuaria con intención de obtener la condición de Agricultor a Título principal, para lo que precisará la siguiente documentación:

- Fotocopia del D.N.I.
- Certificado de la Seguridad Social de pertenecer al Régimen Especial Agrario o al Régimen Especial de Trabajadores Autónomos, rama agraria.
- Para el caso de obras o instalaciones en explotaciones agrícolas y ganaderas, además de aportar la fotocopia compulsada de la declaración de la renta de los tres años siguientes al inicio de la actividad agropecuaria, a los fines de certificar que más del 50% de los ingresos brutos del solicitante provienen de la actividad agropecuaria se deberá de aportar certificado emitido por la Diputación Foral, de inscripción en el registro de explotaciones.
- Los beneficiarios de las condiciones favorables aplicadas como consecuencia de lo especificado en éste apartado, dispondrán de un período de tres años, para la aportación del certificado emitido por la Diputación Foral de Bizkaia, del título de agricultor a título principal. En caso de incumplimiento de los requerimientos especificados, se procederá a dejar sin efecto las tarifas reducidas aplicadas y se practicará la liquidación tributaria pertinente.

En cualquier caso, y para todos los casos especificados anteriormente, se deberá acreditar que el solicitante de la licencia es el titular de los bienes donde se lleve a cabo la actuación pertinente (Título de la propiedad, IBI, etc)

d) Una bonificación del 60%, por ser declaradas de especial interés o utilidad municipal, a favor de Construcciones, Instalaciones y Obras solicitadas por entes, organismos o asociaciones que potencien, promuevan o impulsen la actividad agrícola o ganadera en el municipio.

e) Una bonificación del 50% a favor de las construcciones, instalaciones u obras referentes a las Viviendas de Protección Oficial y del 30% en el supuesto



f) 1) %60ko hobaria egongo da lehendik egon diren eraikinetako oztopo arkitektonikoak kentzen dituzten eraikuntza-lanak, instalazioak edo obrak egiten direnean. Atal honetan sartuko da lehendik igogailurik izan ez duten eraikinetan igogailuak instalatzea.

Traba arkitektonikoak kentzeko egingo diren eraikuntza, instalazio edo beste edozelako lan edo obra horiek lan handiago baten barruan sartzen badira, hobaria bakar-bakarrik aplikatuko zaio traba arkitektonikoak kentzeko egingo den eraikuntza, instalazio edo obrari.

Arau orokor modura, traba arkitektonikoak kentzeagatik aplikatzen den hobaria jaso ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko dituzte etxebizitza-eraikinek:

- a) Eraikinaren erabilera nagusia etxebizitzarakoa izatea.
- b) Eraikinaren zatiren bat etxebizitzarako erabiltzen ez bada, bestelako erabilera horien guztirako azalera ezingo da %50etik gorakoa izan, beheko solairuak eta sotoak kenduta.
- c) 10 urte edo hortik gora izatea.

Aurreko kasu horietatik kanpo geratzen dira 70 urtetik gorako pertsonak bizi diren eraikinak, baita ibiltzeko, eskailerak igotzeko edo traba arkitektonikoak gainditzeko arazoak dituzten pertsonak (protesia edo gurpil-aulkia erabili beharrik izan ez arren) bizi diren eraikinak ere.

Hobaria jasoko dutenak traba arkitektonikoak kentzeko edo igogailua jartzeko (lehendik ez badute) obrak egingo dituzten Jabeen Erkidegoak izango dira.

Ez da inoiz hobaririk emango familiabakarreko edo bi bizitzako etxeetan, banan zein atxikita egon.

2) %60ko hobaria egongo da %33tik gorako minusbaliotasun motriza duten ezinduen bizigarritasuna eta irisgarritasuna hobetzen laguntzen duten eraikinetako elementu pribatiboetan egindako lanetarako, euren beharrianetara moldatzeko eta euren irisgarritasuna hobetzeko etxeetan egiten diren egokitze lanetarako.

g) %60ko hobaria egongo da Udaleko Arau Subsidiarioetan eta Eusko jaurlaritzako Kultura Sailak egindako Mungiako behin-behineko inbentario arkitektonikoan dauden eraikinak

de tener dichas viviendas la calificación de Viviendas Tasada Municipal.

f) 1)Tendrá una bonificación del 60%, la realización de cualquier construcción, instalación u obra que suponga la eliminación de barreras arquitectónicas de edificios o construcciones preexistentes. En este apartado se incluirá la instalación de ascensores en edificios residenciales que carezcan de él.

Cuando la construcción, instalación u obra que suponga la eliminación de barreras preexistentes se englobe en una obra de mayor entidad, la bonificación se aplicará exclusivamente sobre la construcción, instalación u obra que suponga la eliminación de las barreras arquitectónicas.

Con carácter general, los edificios residenciales susceptibles de obtener la bonificación para la supresión de barreras arquitectónicas deben cumplir los requisitos siguientes:

Que el uso principal del inmueble sea residencial.

e) En caso de existir en el inmueble usos no residenciales, el porcentaje de los mismos no podrá ser superior al 50% de la superficie total construida del edificio, excluidas las plantas bajas y los sótanos, en su caso.

Que tengan una antigüedad igual o superior a 10 años.

Quedan exceptuados de los requisitos previstos anteriormente, aquellos supuestos en los que habiten en los edificios personas mayores de 70 años, o con capacidad disminuida para andar, subir escaleras o salvar barreras arquitectónicas, aunque no precisen de prótesis o de silla de ruedas.

Las beneficiarias de la bonificación serán las Comunidades de Propietarios de los edificios residenciales que opten por la supresión de barreras arquitectónicas o la implantación de ascensor en los que carezcan de él.

En ningún caso se concederá la bonificación cuando se trate de viviendas unifamiliares o bifamiliares, aisladas o adosadas.

2) Tendrán una bonificación del 60% en la cuota de este impuesto aquellas obras en elementos privativos de un inmueble que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados con mas de un 33% de minusvalía motriz, derivadas de la necesidad de acondicionar su vivienda para poder mejorar su accesibilidad y para adaptarla a sus necesidades.

g) Una bonificación del 60% por ser declaradas de especial interés o utilidad municipal, a favor de Construcciones, Instalaciones y Obras de mantenimiento y recuperación (correspondientes a la envolvente



jagoteko eta berreskuratzeko eraikinaren kanpoko inguratzaileari (estalkia barne) egiten zaizkion eraikuntza-lan, instalazio eta obretarako.

h) %25eko hobaria energia kontsumoaren murrizketa ekarriko duten isolamendu obretarako.

i) %60ko hobaria egongo da udalarentzat interes edo erabilera berezikotzat izendatzen diren eraikuntza-lan, instalazio eta obretarako; horretarako arrazoi sozialak, historiko-artistikoak edo enplegua sustatzekoak daudenean. Izendapen hori Udalbatzak onartu beharko du Osoko Bilkuran.

j) % 50eko hobaria eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobari hori hartzeko baldintza izango da bero sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak izatea.

Hobari hori eguzki-energia aprobetxatzeko sistemetara bideratutako kopuruei baino ez zaie aplikatuko, baldin eta indarreko legeriaren arabera sistema horien inbertsioa ez bada derrigorrezkoa.

Horrez gainera,, ondoko baldintzak bete eta ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Instalazioa dagokion lizentziarekin egin beharko da, eta instalazio horrek bertan ezarritako zehaztapenak bete beharko ditu.
- Kolektoreek dagokien homologazioa izango dute.
- Eraikin edo higiezin mota guztiek izango dute honetarako aukera, baldin eta eguzki-energia aprobetxatzeko sistemaren instalazioa ez badago arlo horretan indarrean dagoen araudiaren bidez ezarrita edo behartuta.

Horretarako, Eraikuntzako Kode Teknikoan (HE4 atala) ezarritako eremuaren barruan energiaren oinarritzko aurrezki-dokumentuan (CTEDBHE) ez gotea eskatuko da.

Hala ere, hobari hori jaso egin ahal izango da aipatutako Energia Aurrezteko Oinarritzko Dokumentuaren (CTEDBHE) 1.b) puntuan adierazitako eraberritze osoaren xedea energia termikoa aprobetxatzeko sistema bat instalatzea baino ez bada.

externa del edificio, incluida la cubierta) de edificios que figuran en el catálogo de edificios relacionados en las Normas Subsidiarias Municipales y que formen parte del inventario provisional arquitectónico de Mungia, elaborado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

h) Una bonificación del 25% para las obras de aislamiento de fachadas que reduzcan el consumo de energía.

i) Una bonificación del 60% a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Dicha declaración deberá de ser aprobada por el Pleno de la Corporación.

j) Una bonificación del 50 % a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar. La bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.

Esta bonificación será aplicable, exclusivamente, sobre las cantidades destinadas a sistemas de aprovechamiento de la energía solar y cuya inversión no sea obligatoria de acuerdo con la legislación vigente.

Además, habrán de cumplirse los siguientes requisitos, y se deberá aportar la siguiente documentación:

- La instalación deberá realizarse bajo la licencia correspondiente y cumplir con las determinaciones que en ella se impongan.
- Los colectores dispondrán de la homologación correspondiente.
- Se podrán acoger todos los tipos de edificaciones o inmuebles siempre y cuando la instalación del sistema de aprovechamiento de la energía solar no venga impuesta u obligada mediante la normativa vigente en la materia.

En este sentido, se requerirá no estar incluido en el ámbito establecido en el Código Técnico de Edificación (apartado HE4) en su Documento Básico Ahorro de Energía (CTEDBHE).

No obstante, cuando el objeto de la reforma íntegra señalada en el punto 1.b) del citado Documento Básico de Ahorro de Energía (CTEDBHE), sea exclusivamente la instalación de un sistema de aprovechamiento de energía térmica, se podrá optar a la referida bonificación.



Aurreko ataletatik ateratzen dituen zerga-onurak ez dira pilagarriak ez batera erabiltzeko modukoak.

## VI. SORTZAPENA

### 10. artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean sortuko da zerga ordaindu beharra, lizentzia oraindik jaso barik egon arren.

## VII. KUDEAKETA

### 11. artikulua

Aginduzko lizentzia ematen denean, edo erantzukizun-aitorpena edo alde z aurretiko jakinarazpena aurkezten denean, edo oraindik ere lizentzia eskatu, eman edo atzera bota gabe edo aitortpena edo jakinarazpena aurkeztu gabe, eraikuntza, instalazio edo obra hasten denean, behin-behineko likidazioa egingo da, kontura, zerga oinarria interesatuek aurkeztu duten aurrekontuaren arabera zehazturik, baldin eta aurrekontu horrek Elkargo Ofizial eskudunaren ikusonespena badu; baina beti ere aurrekontu hori ez bada Udal honek horretarako ezarritako ondoko modulu edo indizeak aplikatuzetik ateratzen dena baino baxuagoa; izan ere, baxuagoa bada taula honetakoak aplikatuko dira eta ez bestek.

| ERABILERA                                                 | EXEKUZIO MATERIALAREN KOSTUA |
|-----------------------------------------------------------|------------------------------|
| LURRAZPIKO GARAJEA (ERKIDEGO BATENA)                      | 350,00 €/m <sup>2</sup>      |
| LURRAZPIKO GARAJEA (FAMILIA BAKARRARENA / FAMILIA BIRENA) | 450,00 €/ m <sup>2</sup>     |
| MERKATARITZA-LOKALA                                       | 400,00 €/m <sup>2</sup>      |
| ATARIPEA                                                  | 300,00 €/m <sup>2</sup>      |
| TRASTELEKUA                                               | 350,00 €/m <sup>2</sup>      |
| ETXEBIZITZA                                               |                              |
| BOE                                                       | 550,00 €/m <sup>2</sup>      |
| KOLEKTIBOA                                                | 1.005,00 €/m <sup>2</sup>    |
| ATXIKIA                                                   | 950,00 €/m <sup>2</sup>      |
| BANANGO                                                   | 850,00 €/m <sup>2</sup>      |
| PABILOI INDUSTRIALA                                       | 400,00 €/m <sup>2</sup>      |
| NEKAZARITZAKO PABILOIA                                    | 300,00 €/ m <sup>2</sup>     |

Beste kasuren bat bada, zerga-oinarria udal-teknikariak zehaztuko dute, proiektuaren estimazio-kostearen arabera.

Los beneficios fiscales recogidos en los apartados anteriores no son acumulables ni aplicables simultáneamente.

## VI.- DEVENGO

### Artículo 10.-

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aun cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

## VII. GESTIÓN

### Artículo 11.-

Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa o cuando, no habiéndose solicitado, concedido o denegado aun aquella o presentado estas, se inicie la construcción, instalación u obra, se practicará una liquidación provisional, a cuenta, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el Colegio Oficial correspondiente y siempre así mismo, que dicho presupuesto no sea inferior al resultante de la aplicación de los siguientes módulos ó índices establecidos al efecto por éste Ayuntamiento, en cuyo caso se aplicarán éstos y no aquel:

| USO                                  | COSTO EJECUCION MATERIAL  |
|--------------------------------------|---------------------------|
| GARAJE SOTANO COMUNITARIO            | 350,00 €/m <sup>2</sup>   |
| GARAJE SOTANO UNIFAMILIAR/BIFAMILIAR | 450,00 €/ m <sup>2</sup>  |
| LOCAL COMERCIAL                      | 400,00 €/m <sup>2</sup>   |
| PORCHES                              | 300,00 €/m <sup>2</sup>   |
| TRASTEROS                            | 350,00 €/m <sup>2</sup>   |
| VIVIENDAS                            |                           |
| V.P.O                                | 550,00 €/m <sup>2</sup>   |
| COLECTIVAS                           | 1.005,00 €/m <sup>2</sup> |
| ADOSADAS                             | 950,00 €/m <sup>2</sup>   |
| AISLADAS                             | 850,00 €/m <sup>2</sup>   |
| PABELLON INDUSTRIAL                  | 400,00 €/m <sup>2</sup>   |
| PABELLON AGRICOLA                    | 300,00 €/ m <sup>2</sup>  |

En otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.



## **12. artikulua**

Dagokion lizentzia eman ostean, hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa berriz egiteko, aurrekontu aldatuak jatorrizkoa zenbateraino gainditzen duen kontuan hartuta. Edozein kasutan ere 12. artikuluan azaldutako irizpidea erabiliko da.

## **Artículo 13.-**

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra amaitutakoan, haren benetako kostua zein izan den kontuan hartuta, Udal Administrazioak, administrazio-egiaztapen egokia egin ondoren, aldatu egingo du zerga oinarria, hala behar denean, eta behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordainarazi edo itzuliko dio.

2. Aurreko atalean ezarri denaren ondoreetarako, obra bukatu edo behin-behinekoz jaso eta hurrengo hilabetearen barruan, inguruabar horren aitorpena aurkeztuko da, idatziz, Udal Administrazioak emango duen inprimakian. Obra zuzendu duen teknikariaren ziurtagiria erantsiko da, dagokion elkargo profesionalak onirizpena emanda, obren kostu osoa ziurtatuko delarik horrela.

## **Artículo 12.-**

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo, aplicándose en cualquier caso el criterio especificado en el artículo 12.

## **Artículo 13.-**

1. Una vez finalizada la construcción, instalación u obra efectivamente realizadas y teniendo en cuenta el coste real efectivo de las misma, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa, modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva, y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea preceptivo, por la que se certifique el costo total de las obras.





**Artículo 14.-**

Zergaren likidazioari dagokionez, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentzien ondorioak, berariaz ematen diren lizentziek dituzten berberak izango dira.

**15. artikulua**

Udalak zerga hau autolikidazio erara eskatu ahal izango du.

Obraren exekuziorako aldeztu aurretiko jakinarazpena edo erantzukizun-aitorpena aurkeztu behar bada, zergaren likidazioa egin beharko da jakinarazpena edo aitortza egiterakoan, eta horiekin batera aurkeztu beharko da.

**16. artikulua**

Lizentziaren titularrak, idatziz uko eginez, baimendu diren obrak, eraikuntzak edo instalazioak alde batera uzten baditu, Udalak behin-behineko likidazioa itzuliko dio edo osorik deuseztatuko.

**17. artikulua**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egin den likidazioa itzuli edo deuseztatuko du, titularrak hura berritzea eskatu eta Udalak baimena ematen duenean salbu.

**VIII. AZKEN XEDAPENA**

Udalbatzak 1989ko zemendiaren 3an egindako Osoko Bilkuran eman zion behin betiko onarpena Ordenantza honi.

**Artículo 14.-**

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

**Artículo 15.-**

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

Cuando la ejecución de la obra, esté sometida a comunicación previa ó declaración responsable, la liquidación del impuesto, deberá hacerse efectiva al tiempo de formularse la correspondiente comunicación ó declaración responsable y deberá de presentarse junto con aquellas.

**Artículo 16.-**

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

**Artículo 17.-**

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

**VIII. DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza fue aprobada definitivamente por el Pleno extraordinario del 3 de noviembre de 1.989.